

Donosti, 1924- Uríla, 8.

Agur, adiskide: Nik banuan aspaldi adiskide zintzo, on, atsegin bat. Idazle, garbi ta apaña zan, gizon gazte, goxo ta leguna; batzuetan polborategitik iñofk atera ezin zuana, ta beste batzuetan Jaizkibel-mendian go- ra ta bera, Guadalupe ta Justiz inguruan nekatu gabe ibiltzen zana. Urdanibia' ko nagusi zañaren adiskide bikaña zan; pipar-zaletxoa ere bai... Goitik berako soñeko beltza zuan... Kubero politeko izkuntz eztia... Nere benetako adiskide on ura nun ote dabilen ñbai ote dakizu?

Il dan ala ez dan, ziur ez dakit. Gaizto-xamára (ja jesuita okeá!) zala- ta, Euskaleritik urutiratu zuten. Gero, Toulusse'era joan ote zan ala ez zan, zuz- murua ibili zan. Gero beríz, oraindik arantzago, urutirego bidaldu zutela. Paris'era, gaizto guztiak bizi diran tokira! Egia ote da? Ez det uste. Bizi izan balitz, bere adiskidetzaz gogoratuko zan, eta noiz edo noiz neri ere ida- tziko ziran kafta-punta bat. Onezkero le bon Dieu'k eraman du bere aldamenera gizarajo ura.

Ni ez nau oraindik eraman, adiskide. Beti bezela, emen nabil nere lengo gau- za zañakin gora ta bera. Euskera ta Euskalería biotzean eta buruan, eta beti piek goratu ta txalotzen. Goizetik gauera lanean, eta ala ere pijo ta osasuntsu. Beti gurean, ta aufera. Gu ez gaitu ezeík epeltzen eta makurützen. Aurera, bizi geran arte.

Ezkondu nitzala, badakizu; oraintxe dira bi urte. Auñtengo bukatzerako, ne- re etxean izango da mutil koskoñ motzen bat, neska txiki zoragaríren bat etor- tzen ez bazaigu. Badut andrea, izango dut semea.. etxea ere badut nik... txingar ezura ere bai... Benetan zoriontsua izateko gauza bat bakaña bear nuke nik: ne- re adiskideak noiz edo noiz nizaz croitzea.

Nere etxekoak ere zuk utzi bezelaxe daude. Aita, sendotako langile oraindik, bere 70 urteak arin daramazkiala. Betiko Ondarribi ederlean, paper zaŕ eta liburu zaŕagoen artean. Ama ere ondo, betiko lanetan kezkarik gabe. Nere emaztetxoa eta ni astero joaten gera igandean bantzera, gauerako beriz gure Donosti ontara etoritzeko. Aitak askotan galdezen dit zuzaz, bañan nik... ezin ezer esan.

Ez naiz gogoratzen nere azkenengo liburutxo kaxkara bidaldu nizun ala ez. Bada ez bada, orí dijoakizu beriz ere. Lenago bidaldu baldin banizun, oraingo saldu zaiozu. Sena-eítzean liburu zaŕ saltzen egoten diran oietakoren bat, eta ematen dizun diruarekin pipa eder bat erosi zazu, Boulevard eta, kea darizula ibiltzeko.

Nik, azkenekotz, zure Yolanda irakurí det, bai euskeraz ta bai prantzesez. Ira-kuri gabekok bañira oraindik: **Les mouettes** ori ez ezaguna da neretzat. Zuk ere aiekin urutti egaz egin zenuan eta.....

Paris'en beraz ge?. Poztutzen naiz. **Alakoren batean** Paris aldera joaten bagera, ez gera zu ikusi gabe etoríko. Len ere izan giñan, eta bai ederki ibili ere.... Orain ordea lotuak bizi gera, geroz ta lotugo, ta ez da ain eirez izango.

Ondarribiko zure adiskide apaiz Don Bizente Ketari'ra joan zalaibai al dakizu? Anglo ejetore egin zuten, eta an dago.

¿ Ta alkate zein dagon bai al dakizu? Sagarzazu, **edozein ariki lantegikoa**. Abeítzale purukatua zan lenago, ta orain oraingo agintariak egindako alkate. Eguzkia nora, zapiak ara.

Agur, adiskide. Ondo ondo bizi, ez lan geiegi egin, eta guzaz croitu noizian bein. Badakizu nik ez zaitudala aztutzen. Agur, **uri argitsuko** biztanle bikaña.

Agustín *Mujika*
